

Julen Arzuaga

33/01 AUZIAN EPAITUA

Eta orain zer?

Amaitu da Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren (AAM) kontrako ahozko bista Espainiako Auzitegi Nazionalan. Hogeita zazpi herritar erakunde armatuko ustezko kide izateagatik egindako epaiketa.

Francoren garaiko Tribunal de Orden Públicoren oinordekoa den auzitegi horren ibilbide historikoa ezagututa...

Euskal Herrian garatzen diren ekimen politiko, sozial, kulturalen aurka izan duen jarrera eta zehatzago, Haika-Segi auzian eta berrikiago 18/98 auzian izan duen portaera kontuan hartuta— auzitegi horren izaera politikoa etengabe mahai gainean jarrita...

Berme juridikoak eta justizia printzipioak baino, mendeku politikoa lortzeko tresna errepresioa bezala ulertuta...

Eskubide politikoak —adierazpen askatasuna, elkartzeko eta manifestatzeko eskubideak— ezin direla negoziatu, fiskalizatu, baldintzatu, beti pentsatuta, gure kontrako epaia idatzita dagoela eta, momentu politiko honen gidoiak exijitzen duen moduan, zigor larriak izango direla argi edukita...: gure defentsa juridikoa egiteari uko egin genion.

Bi hilabete hauetan, auzitegiaren aurrean gure portaera pasiboa izan bada ere, lekuko deserosoak izan gara berriro ere: Euskal Herria denik ere onartzen ez duen epaimahaia ikusi dugu. Ekinbide sozial eta politiko bat zertan



DANI BLANCO

datzan eta herriaren ekimenak nola gauzatzen diren ulertzen ez duena. Denak etsaitzat hartzeko betaurrekoak jantzita, zozketa, txosna eta elkarretaratzeak, edozein arrazoiengatik antolatuta egonda ere —arrazoi horiek guretzat behintzat ezagunak eta gardenak izan arren—, era kriminalizatzailean interpretatzen ditu. Baina, hala eta guztiz ere, gure ekimenak torturaren existentzia, espetxe-politika basatia eta Estatuaren terrorismoaren ondorio zuzenak direla ikusi dugu bai guk bai epaileek ere. Errealitate horiek ageri-agerikoak baitira beti Amnistiaren Aldeko Mugimenduz ari garenean.

Auzitegiaren aurrean izan dugun pasibotasun horrek gure herriarekin izan dugun jarrera aktibo eta ozenarekin kontrastatu du, argi eta ozen esan baitugu errepresioa dagoen bitartean, horren kontrako salaketa egongo dela. Inork Estatuaren bortizkeriaren atzaparkadak sufritu baditu, ez duela bidea bakarrik egingo. Gu ez bagara ere, beste batzuk izango direla gure herri honetan errepresioaren kontrako bandera altxatuko dutenak eta guztion artean olatu-horma bat eraikiko dugula, herri honen esku-bideen kontrako erasoer aurre egiteko.

Izan ere, preso politiko gehiago sortuz Amnistiaren Aldeko Mugimendua galaraziko dutela uste al dute? ■

«
Gu ez bagara ere, beste batzuk
izango dira gure herri honetan
errepresioaren kontrako bandera
altxatuko dutenak
»

TXANDAN

Juan Ramon Makuso



Egunero ohetik altxatu eta badut harridura agertzeko arrazoirik. Eta horretarako zer hobe egunkarietako orriei begirada bat ematea baino. Baina hauei erreparatuta eta gero, galdera bat etortzen zait burura: zein ote da hurrengoa? Izango al da harritzeko motiborik? Non dago listoa? Beharbada ez dago, gizakiak ez duelako mugarik, onerako zein txarrerako. Edo badago beste motiborik: ea nork botatzen duen handiena, eta horretarako ez dugu behar AHTrik; oraindik gai baikara ibiltzeko kostako trenean. Eta zerrendari erreparatuta, batzuk aipatze arren, bes-

Impossible is nothing

teak beste, euskal taldeko futbolari batek dioena: “Taldeko fitxa batzuk ez daude urruti langile arunt batenetik”; edo euskal politiko ohi batek bere kargu berria hartu berrikan —enpresa handi baten zuzendaria—: “Hau herria zerbitzatzeko beste modu bat da”; edo hainbat idazle, pentsalari, eta beste hainbat espainiarrek, espainiera hizkuntza arriskuan ikusten dute Estatu-ko beste hizkuntzen artean. Eta ni beti harro espainiera dakidalako, eta beste hizkuntzetan trebatzen naizelako! Hori bai. Espainiako futbol taldea Castellanaatik zeraman autobus dotoreak horrela zioen: *impossible is nothing. Au revoir.* ■